

---

---

# ON FERNANDO SEBASTIAN, IRUÑA'KO GOIGOTZAIARI ERASPEN GUZTIZ ETA BEGIRUNIK AUNDIENAZ<sup>1</sup>

---

---

Irakurri dot, On Fernando, atzo otsaillak 9, datozen auteskundeei-buruz, "Deia" izparringian argitaratu zenduan idazlana. Eta gaur bertan —otsaillak 10— nai dautsut erantzun. Apalki, baiñan leialki. Gotzaiak losintxatzea ez bait da zuzenki jokatzea.

Samiñez esaten dautsut, zure aburu guztiekin bat ez natorrela. Esan dozuz gauza ederrak. Baita, nere ustez ain ederrak ez diranak ere.

Autarkia (botoa) era zintzoan emateko, onako iru puntuok aipatzen daskuzuz bearrezkoak bezala:

—Zuzenean edo zearka terrorismoari laguntzen dautsenei aurtaki-ematea ez dala zillegi.

Autarkia, terrorismoaren aurka, argien eta egokien jokatzan dabenei eman bear yakela.

— Autarkia ematerakoan, Naparroa ren eta Españi'ren onturrea billatu bear dogula.

(Zure itzak gazteleratik ondo euskeratu dodazala uste dot, On Sebastian. Nai neuke beintzat; garrantzi aundikoak bait dire neretzat zure itz oiek).

Badakit esan dozuna borondaterik santuenaz esan dozula, baiñan ez dot uste egoki esana izan danik. Ez da zure kulpa.

Euskalerrri'ko gotzaia zara, baiñan Euskalerrriko izpiriturik ez dozu. Ez da Zure kulpa.

Badozu Euskalerrria-baitan jurusdikzioa, baiñan zure-baitan ez dozu Euskalerrriaren oarmenik. Ez da zure kulpa.

Orregaitik, zure eskutitz orrek Iruña bateko gotzaiaren eskutitza baiño geiago dirudi edozein Guadalajara bateko gotzai baten eskutitza. Edozein Guadalajara'n jendeak egunero izparringietan irakurri ta irrati ta telebistaz entzuten dabezan gauza berberak esaten bait dozuz.

Oridalata, Euskalerritik at, bai, mundu guzia izango dozu zurekin bat. Eta txalorik asko jaso aal izango dozu.

Baiña Euskalerrian —eta zure Naparroa'n— ez dozu orrelako batasunik lortuko. Beste era batekoa bait da zure artaldea, eta mota ezberdin askokoak bertan bizi diran zure ardiak.

Alde izango dozuz, zure ezkutitz ori pozik izenpetuko leukeen Aznar, Mayor Oreja eta Sanz'en atzetik dabilznanak; ez aiñ aldekoak Arzalluz, Garaikoetxea ta Otegi'ri jarraitzen dautseenak.

Españi aipatu bait dozu, eta, Naparro'an, gaur, Españi aipatzea Euzkadi aipatzea bezin arriskutsua bait da. Eta, On Sebastian, zure artalde ortan danak izaki zure ardiak!: Españizaleak eta Euzkadizaleak!

Gaiñera, ez da ain zarra Naparroa'ko Jaurlaritzak berak egin eban ikerketa (enkuesta) bat. Ikerketa ortako galdera bat au zan: "Zu zer zara bereiziki, Española? ala Naparra? Ta geiengo aundiz, jenderik geienak, "ni? naparra!", erantzun eban. Orrek ere zerbait esan naiko dau noski, On Sebastian.

— Terrorismoari dagokionez, ia zure ardi guztiek egingo dabe zurekin bat. Ez da ba zillegi Terrorismoaren aldekoie autarkirik emotea. Baiñan, auek ere, On Sebastian, ardi galduak, bai, baiñan zure ardiak dozuz; igesegindako semeak, bai, baiñan zure semeak.

—Danok oartu gara —eta danak oartuko dira— zuk zure idazlan ortan ain maitetsu aipatu dozuzan "terrorismoaren-aurka egoki lan egiten daben" oiek nor izan dai-tekezen. Baiña, erarik mixeablanean urte t' erdi Euskalerrriarentzako pakegintza-lanean apalperrik galdu dabeta, zu Profeta ere bazalararik, zure itz bat edo bi —Profetaren itzak— merezi ebezala uste dabena bat baiño geiago gaituzu zure Euskalerrri ontan, eta, baita, zure Naparroan bertan ere.

Baiña ez dozu ezer esan.

**LATIEGI'tar Bixente**

---

<sup>1</sup> Nere eskutitz au Iruña'ko "Diario de Navarra"n izan da argitaratua. Bizkai'ko euskal-irakurlentzat ere jakingarria izango dalako ustez argitaratzen dot "zer"en, egiazko Bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarrean. Naparrerako aditza Bizkaierara biurtu besterik ez dot egin.